

VI. inkesta soziolinguistikoa, 2016

Eusko Jaurlaritz, Nafarroako Gobernu eta Euskararen Erakunde Publikoa

Ipar Euskal Herriko gogoetak : euskara berrabiatzearen bidean

2016ko inkesta soziolinguistikoa erakusten digu euskara bide onean dagoela. Nahiz Ipar Euskal Herrian euskara ez den oraino normaltasun osora heldu _eta, beraz, galtzeko arriskuarekin dabilen_ 2011an agertzen ziren argi berde batzuek pizten segitzen dute. Adibide batzuk.

- Euskaldunen zenbaki erlatiboak (zenbat euskaldun baden populazio guztiaren gain) oraindik gainbehera doaz baina zenbaki absolutuak (euskaldun kopurua) egonkortzen hasten da.
- Adin-arte gazteenen euskaltasunak goratzen segitzen dute azken 20 urte hauetan.
- Familia bidezko jarraipena gora egoten da gurasoak euskaldunak direlarik, eta hobetuz doa euskaldun-erdaldun bikoteetan ere. Azken inkestek erakusten dute euskal haurtzaindegiek eta eskolek ere funtsezko rol bat daukatela euskararen transmisioarentzako.
- Euskararen erabilpen aktiboa aski kontrastatua geratzen da: lagunartean eta familiarik kanpo, erabilpen aktiboa nahiko apala da. Noizbehinkako erabilpenak aldiz emendatze bat ezagutu du.
- Euskararen aldeko, eta bere promozioari buruzko iritziak orokorki baikorrak dira. Horrek aurreikus liezaioke etorkizun positibo bat.

Hizkuntza gaitasuna

Hiztegia : euskaldunak dira euskaraz ongi edo aski ongi mintzatzen direnak ;

- elebidun hartzaileek euskara ulertzen dute eta doi bat mintzatzen ;
- erdaldunek euskara ez dakite salbu bizpahiru hitz.

Gaur egun, Ipar Euskal Herriko 16 urtez goragoko hiztunen %20,5 dira euskaldunak (51.000), %9,3 elebidun hartzaileak (23.000) eta %70,1 erdaldunak (175.000).

1. taula: hizkuntza gaitasuna Ipar Euskal Herrian

Hizkuntza gaitasuna	Ipar Euskal Herria 249.000	BAM 102.000	Lapurdi bestalde 115.000	Nafarroa B. Zuberoa 26.000
Euskaldunak	51.000 % 20.5	9.000 % 8	26.000 %23	17.000 % 50
Elebidun hartzaileak	23.000 % 9.3	6.000 % 6	13.000 % 11	4.000 % 14
Erdaldunak	175.000 % 70.1	88.000 % 86	75.000 % 66	12.000 % 37

Iturria : VI. inkesta soziolinguistikoa, Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua eta EEP, 2016

Eskualdeka Baionaldea da gutienik euskalduna (populazioaren %8a) eta gehienik erdalduna (%86a). Beste eskualdeetan, euskaldunak eta elebidun hartzaileak elkartzen baditugu Lapurdi barnean heren bat elebidun eta bi heren erdaldun dira, Nafarroa Beherean eta Zuberoan aldiz ia bi heren elebidun eta heren bat erdaldun.

Jendetza kontutan hartuz, non bizi dira Iparraldeko euskaldun multzoak ?


- 26.000 euskaldun eta 13.000 erdi-euskaldun Lapurdi barnealdean.
- 17.000 euskaldun eta 4.000 erdi-euskaldun Nafarroa Beherean eta Zuberoan.
- 9.000 euskaldun eta 6.000 erdi-euskaldun Baiona-Angelu-Biarritzen.

Non dago euskaldungoa? %50 baino pixka bat gehiago Lapurdi barnealdean, %30a Baxenabarre-Xuberon, eta kasik %20a Baionaldean.

2. taula: Hizkuntza gaitasuna adinaren arabera

Adin-taldeak Sorturtea +/- Jendetza	Ipar EH 2016	65 eta + 1944	50-64 1955	35-49 1974	25-34 1987	16-24 1996
	249.000	68.000	61.000	61.000	33.000	26.000
Euskaldun	51.000 % 20.5	19.000 % 28	13.000 % 21	9.000 % 15	5.000 % 16	5.000 % 19
Elebidun hartzaile	23.000 % 9,3	5.000 % 8	5.000 % 8	6.000 %10	3.000 % 11	4.000 % 14
<i>Elebidun guziak</i>	<i>74.000</i> <i>% 29.8</i>	<i>24.000</i> <i>% 36</i>	<i>18.000</i> <i>% 29</i>	<i>15.000</i> <i>% 25</i>	<i>8.000</i> <i>% 27</i>	<i>9.000</i> <i>% 33</i>
Erdaldun	175.000 % 70.1	44.000 % 64	43.000 % 71	46.000 % 76	24.000 % 74	18.000 % 67

Iturria : VI. inkesta soziolinguistikoa, Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua eta EEP, 2016



Iturria : VI. inkesta soziolinguistikoa, Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua eta EEP, 2016

Euskaldunen kurba gain berera doa hiru adin-talde zaharrenetan %28tik (1944an) %15era (1974an) eta gorantz abiatzen da adin-talde gazteenekin: %16 1987an eta %19 1991an.


Elebidun hartzaileen kurba aldiz egonkorra bi adin-talde zaharrenetan (%8 1944 eta 1955an) eta gorantz abian da beste hiru adin-taldeetan (%10 1974an, %11 1987an eta %14a 1996an)

Elebidun guziak elkartuz, kurba itxaropentsua dugu : gainbehera %36tik %25 arte. Bihurgunea 35-49 urtekoekin. Eta gero petik-gora %25etik %33 arte adin-talde gateenean.

Bi adin-talde zaharrenetan, erdaldunen tasa emendatuz doa 35-49 adinekoak arte eta gero gain behera %76tik %67ra hiru adin-talde gazteenetan.

3. taula: euskaldunak adinaren arabera inkestetan zehar (%)

Adin-taldeak Inkestak	Orotara	65 & +	50-64	35-49	25-34	16-24
1996	27	38	32	27	14	11
2001	25	36	30	23	12	12
2006	23	32	27	18	12	16
2011	22	31	24	15	14	18
2016	20,5	28	21	15	16	19



Iturria : Inkesta soziolinguistikoak, Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua eta EEP, 1991-2016

3. taula irakurtzen badugu adin-talde zaharretik gazteeneraino, 1996ko kurba gain behera doa burutik buru. 2001ekoa jautsi da 35. urteraino eta gero gelditu adinarte gazteenean. 2006 eta 2011ko kurbetan petik gora hasi da 16-24 urtekoekin. 2016koan kurba berriz goruntz doa 25-34 eta 16-24 urtekoekin.

Taula irakurtzen bada gainbehera, Iparradeko euskaldungoa ahuldu da 2 punduz aipatzen ditugun lehen hiru inkestetan, puntu batez bakarrik 2011ko inkestan eta puntu bat eta erdiz azkenean. 2 adin-talde zaharrenak gain behera doaz orain arte. 35-49 urtekoa, ordea, egonkortu da. 25-34 urtekoen eta 16-24 urtekoen euskaltasuna petik gora doa, ez ziztu bizian, baina molde iraunkorrean.

Euskaldunak hiru eskualdeetan

Euskaldunak kontatuz eskualdeen eta adinaren arabera, ikusten dugu euskaldunen tasa gorantz doala BABen bi adin-talde gazteenentzako, Lapurdin, hiru adin-talde gazteenentzako. Nafarroa Beherean eta Zuberoa euskaldunen ehunekoa jautsi da %52tik %47ra, baina gain-behera gelditu da bi adin-talde gazteenen artean eta emeki emeki kurba berriz gora doa.

Euskaldunen gaitasun erlatiboa

Euskaldunak 3 sailetan bana daitezke, euskararen eta frantsesaren erabiltzeko duten trebetasuna kontuan hartuz.

- euskal elebidunek euskaraz errazago hitz egiten dute ($E > F$) ;
- elebidun orekatuek trebetasun berdina dute bi hizkuntzetan ($E = F$) ;
- erdal elebidunek frantsesaz errazago hitz egiten dute ($E < F$).

4. taula: gaitasun erlatiboa eskualdeka (%)

	Iparraldea	BAB	Lapurdi bestalde	Nafarroa B. eta Zuberoa
Euskal elebidunak	21	9	20	29
Elebidun orekatuak	38	25	38	44
Erdal elebidunak .	41	67	42	27

Iturria : VI. inkesta soziolinguistikoa, Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua eta EEP, 2016

Gaitasun erlatiboaren proportzioak ikusiz, ohar batzuk egin ditzazkegu :

- Ipar Euskal herri osoan erdal elebidunak dira nagusi, %41a osatzen baitute. Emendio azkarra ezagutu du, %34tik %41era pasatuz. Bai euskal elebidunek eta bai elebidun orekatuek gibelatze bat ezagutu dute, lehendabizikoak %23tik 21era pasatuz eta bigarrenak %43tik 38ra.
- Lapurdi barnealdeko eta BAMEko euskaldunek erraztasun gehiago dute frantsesarekin : BAMen %67 erdal elebidun, Lapurdi barnealdean %42. BAM-en euskal elebidunen tasak apaltze azkarra ezagutu du, %17tik 9ra pasatuz. Lapurdi barnealdean ere, baina gibelatze arinagoa izan da (%22tik 20ra)
- Nafarroa Beherean eta Zuberoan da euskal elebidunen proportzio handiena %29, baita ere elebidun orekatuena %44.

5. taula: gaitasun erlatiboa adinaren arabera (%)

Adin-taldeak	Iparralde	65 eta +	50 – 64	35 – 49	25 – 34	16 – 24
Euskal elebidunak	21	31	19	16	9	9
Elebidun orekatuak	38	32	40	50	40	27
Erdal elebidunak	42	37	40	34	51	64

Iturria : VI. inkesta soziolinguistikoa, Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua eta EEP, 2016

Zer agertzen da adin multzo bakoitzean ? Orotan erdal elebitasuna da nagusi, bereziki bi adin-talde gazteenetan, (%51 eta %64). Zaharrenetan aurkitzen da euskarari buruzko erraztasun handiena, %31. Gero erraztasun hori laster

ttipitzen da, berehala 12 punduz eta gero hiztuna gazteago eta erraztasuna ahulago da (bi adin-talde gazteetan, euskal-elebidunen tasa egonkortu egin da %9tan).


Alderantziz hiztunak gazteago eta frantsesa errazago zaie, %37entzat zaharretan, %64entzat gazteenetan. 16-24 urtekoetan euskalduntasuna aitzinatu da, baina euskal elebidunak 3 punduz gutitu dira 5 urtez eta erdal elebidunak 14 punduz emendatu. E. Bachoc-ek idazten duen bezala, kantitatean irabazi dutena ez lukete hizkuntzaren kalitatean galdu behar.

6. taula: gaitasun erlatiboa lau inkestatan zehar %

Ipar Euskal Herria	1996	2001	2006	2011	2016
Euskal elebidunak	34	27	25	23	21
elebidun orekatuak	32	37	51	43	38
erdal elebidunak	34	41	24	34	42

Argi da euskal elebidunen proportzioa gutxituz doala inkesta batetik bestera, elebidun orekatuak eta erdal elebidunen bilakaerak aldiz irregularrak dira, nahiz azken hiru inkestetan tendentzia orokor bat agertzen den : elebidun orekatuen tasa goiti behera doa, erdal elebidunena beste zentzuan joaten den bitartean.

Sei inkestak 1991, 1996, 2001, 2006, 2011 eta 2016an



Iturria : Inkesta soziolinguistikoak, Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernua eta EEP, 1991-2016

Bachoc-ek idatzi duen bezala, emaitza ofizialetan 1991 eta 1996 artean 13.000 euskaldun galdu ziren. Ez zen sinesgarri. 1991ko adin-taldeak berriz kontatu ziren

II. III. eta IV. inkestetan. Ondorioz euskaldunen 1991ko kopurua 69.000tik 60.000ra zuzendu behar da.


Sei inkestak konparatuz, 25 urtez jendetza 40.000 biztanlez goratu da. Denbora berean 8.800 euskaldun gutiago gara, baina 7.000 elebidun hartzaile gehiago dira.

Azken bost urte hauetan, elebidun hartzaileen garapena kontuan hartuz, euskaldunen eta erdi-euskaldunen kopurua goratu da 1.600 hiztunez (3.500 hiztunez hamar urtez). Halere erdaldunen kopurua ere handitu da, 5 urtez jendetza 10.000 herritarrez emendatu baita.

7. taula : hizkuntza gaitasuna 25 urtez

	1.	1.	2.	3.	4.	5.	6.	1 --> 6
Jendetza	1991	1991	1996	2001	2006	2011	2016	BILAN
16 urte	208.900	<i>zuzen</i>	212.400	221.600	230.200	238.360	249.000	+40.100
Euskaldunak	69.100 33,10%	59.900 28,70%	56.100 26,50%	54.600 24,70%	51.800 22,50%	51.100 21,40%	51.200 20,50%	-17.900 -12,60%
Elebidun hartzaileak	14.700 7,00%	17.900 8,50%	19.800 9,30%	26.400 11,90%	19.800 8,60%	21.700 9,10%	23.300 9,30%	+8.600 +2,30%
Euskaldun guztiak	83.800 40,10%	77.800 37,20%	75.900 35,80%	81.000 36,60%	71.600 31,10%	72.800 30,50%	73.500 29,80%	-10.300 -10,30%
Erdaldunak	125.100 59,90%	151.100 62,80%	136.500 64,20%	140.600 63,40%	158.600 68,90%	165.560 69,50%	174.900 70,10%	+49.800 +10,20%

Bost inkestetako 30 adin-taldeak (%)



Iturria : Inkesta soziolinguistikoa, Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua eta EEP, 1991-2016

Adin-taldeen jarraipena

Ikus zenbakiak hurrengo taulan. 1991ko inkestaren gehiegikeriak nabari dira. 30 adin-taldeak kontuan hartuz ageri da ehunekotan euskaldungoa jautsi dela 1919 eta 1976 artean %39tik %11 arte, 60 urtez %28 galduz (urtero puntu erdi bat). 1977an kurba gorantz abiatu da, 20 urtez %8 irabaziz. Hots gaur egun 1991 eta 1996ko adinarreak gorantzeko bidean daude.

Elebidun hartzaileen kurba irregularra da, mintzamina baino zailago baita ulermena definitzea. Dena dela, erdi euskaldunen heina bat batean goratu da 1959ko adin-taldearekin. 20 urte zuten AEK Iparraldera zabaldu zelarik 1979an. Asma daiteke elebidun hartzaile hauek euskalduntzeko bidean direla: 3 adin-taldetan euskaldunak baino gehiago ziren. Gaur egun, hartzaileen tasa emekiago emendatzen eta badirudi hartzaileen eboluzioak elebidunena segitzen duela.

Adin- taldeak : Sei inkestetako 30 adin-taldeak zerrendatuak dira sorturteen ordena kronologikoan. Argitasunarengatik adin-talde bakoitzean erdi-guneko sorturtea hartu dugu, jakinez 3 adinarte zaharrenak 15 urtekoak direla et 2 gazteenak 10 eta 9 urtekoa. Beraz adin-talde bakoitzak bere bi auzoak estal ditzazke neurri batean, teilar teilar bezala.

Inkestak : Zenbakiak inkestak adierazten dituzte eta hizkiek adin-taldeak.

- 5 inkestak : (1-) 1991, (2-) 1996, (3-) 2001, (4-) 2006, (5-) 2011, (6-) 2016
- 5 adin-taldeak : (-A) >65 urte, (-B) 50-64, (C) 35-49, (-D) 25-34, (-E) 16-24 urte.

8. taula: hizkuntza gaitasunaren teilatua (%)

Inkesta Sorturtea +/-	(1-A) 1919	(2-A) 1924	(3-A) 1929	(1-B) 1934	(4-A) 1934	(2-B) 1939	(5-A) 1939	(3-B) 1944	(6-A) 1944	(1-C) 1949	(4-B) 1949
Euskaldun Ele. hartzaile	39 3	37 6	36 6	40 8	33 8	32 9	31 8	30 12	28 8	32 6	27 6
Elebidun oro	----- 42	----- 43	----- 42	----- 48	----- 41	----- 41	----- 38	----- 42	----- 36	----- 38	----- 33

Inkesta Sorturtea +/-	(2-C) 1954	(5-B) 1954	(6-B) 1955	(3-C) 1959	(1-D) 1962	(4-C) 1964	(2-D) 1967	(5-C) 1969	(1-E) 1971	(3-D) 1972	(6-C) 1974	(2-E) 1976
Euskaldun Ele. hartzaile	27 6	24 7	21 8	23 14	25 10	18 10	14 13	15 10	20 15	12 13	15 10	11 13
Elebidun oro	----- 36	----- 31	----- 29	----- 37	----- 35	----- 28	----- 27	----- 25	----- 35	----- 25	----- 25	----- 24

Inkesta Sorturtea +/-	(4-D) 1977	(3-E) 1981	(5-D) 1982	(6-D) 1987	(4-E) 1986	(5-E) 1991	(6-E) 1996
Euskaldun Ele. hartzaile	12 10	12 20	14 12	16 11	16 10	18 11	19 14
Elebidun oro	----- 22	----- 32	----- 26	----- 27	----- 26	----- 29	----- 33

Lehen inkestako lekuko zaharrenak 1911n sortua ziren eta azken inkestako lekuko gazteenak 1996an. 25 urtez egin diren inkesten bidez, euskararen 85 urteko historia egin dezakegu.

Belaunaldien jarraipena (E. Bachoc-en analisisia)

25 urteko belaunaldiak hartuz, 1924an sortuak direnak euskaldun dira %37. Guraso bilakatu direlarik 1949an, beren "baby boom" famatuari euskara transmititu diete %27k. Belaunaldi honen haurrak euskaldun dira %11, 1976 inguruan, eta hemen dago Iparraldeko euskaldungoaren zilo beltza. Ondoko belaunaldien berreuskalduntzearen jatorriak anitzak daitezke: guraso edo aitaxi-amatxiengandik, haurtzaindegiak edo eskoletatik, edota ere helduen euskalduntze zentroetatik...

Euskararen transmisioa

Lau ikergai : lehen hizkuntza, hizkuntzen bilakaera, familia eta haurtzaindegi bidezko transmisioa.

Lehen hizkuntza

9. taula: lehen hizkuntza adinaren arabera (%)

Adin-taldeak Jendetza	Orotara 249.400	65 eta + 68.200	50-64 61.200	35-49 60.700	25-34 32.800	16-24 26.400
Lehen hizkuntza						
euskara	16	26	19	12	8	5
euskara + frantsesa	6	6	6	5	6	6
frantsesa	78	68	75	83	86	89

Iturria : VI. inkesta soziolinguistikoa, Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernua eta EEP, 2016

Lehen hizkuntza adinaren arabera aztertzen bada ikusten da, 3 urte arte etxean euskaraz bakarrik mintzatu diren euskaldunen heina gain behera doala zaharrentariko gazteenetara %26tik %5etara. Jatorriz frantsesez mintzatu direnen kopurua petik gora %68tik %89ra. Haurtzaroan bi hizkuntzak erabili dituztenen heina berdintsu egon da adin-talde oroz, %6 inguru.

Hizkuntza gaitasuna lehen hizkuntzaren arabera

10. taula: hizkuntza gaitasuna lehen hizkuntzaren arabera

Elebitasun-mota	Ipar E. H.	Lehen hizkuntzak		
	Orotara 249.400	Euskara 40.000	Biak 15.000	Frantsesa 170.900
elebidunak	51.200 %21	33.400 %84	10.000 %67	8.000 %4
Elebidun hartzailleak	23.300 %9	4.500 %11	2.700 %18	16.000 %8
Erdaldunak	175.000 %70	2.000 %5	2.000 %14	170.909 %88

Iturria : VI. inkesta soziolinguistikoa, Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernua eta EEP, 2016

Elebitasun motak (euskaldun, elebidun hartzaille ala erdaldun) lotura handia du lehen hizkuntzarekin. Euskaraz sortu direnak euskaldun dira (%84) eta frantsesez sortu direnak frantsesdun oraino gehiago handiagoan(%88). Jatorrizko elebidun gehienek euskara atxiki dute (bi herenek atxiki dute), %18 elebidun hartzaille bilakatu dira eta %14ak euskara galdu egin du.

Ehuneko bertikalean ez, baina zenbaki gordinetan gehiago dira euskaldun berriak (8.000) ezinez eta erdaldun berriak (2.000). Molde berean gehiago dira euskalduntzen ari diren jatorrizko erdaldunak (16.000) ezinez eta erdalduntzen ari diren jatorrizko euskaldunak (4.500). Beraz oro har euskara irabazle ateratzen da, baina ezberdintasun handiak badira adin-taldeen arabera.

Euskararen galtze irabaziaz adinaren arabera

11. taula: hizkuntzen bilakaera adinaren arabera

	Guztira	>=65	50-64	35-49	25-34	16-24
Guztira	249 441	68 274	61 225	60 721	32 817	26 404
	100,0	100	100	100	100	100
Euskaldunzaharrak	33 357	15 518	9 291	5 314	2 025	1 209
	%13,4	%23	%15	%9	%6	%5
Jatorrizko elebidunak	9 814	2 966	2 203	2 113	1 390	1 142
	%3,9	%4	%4	%3	%4	%4
Euskaldunberriak	8 027	699	1 529	1 439	1 723	2 636
	%3,2	%1	%2	%2	%5	%10
Partzialki euskaldunberriak	16 176	3 071	2 843	4 029	2 880	3 354
	%6,5	%4	%5	%7	%9	%13
Partzialki erdaldunduak	7 123	2 202	2 136	1 873	617	295
	%2,9	%3	%3	%3	%2	%1
Guztiz erdaldunduak	4 035	857	1 497	1 019	438	225
	%1,6	%1	%2	%2	%1	%1
Erdaldunzaharrak	170 909	42 961	41 726	44 933	23 745	17 544
	%68,5	%63	%68	%74	%72	%66

Iturria : VI. inkesta soziolinguistikoa, Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua eta EEP, 2016

Tipologia honek adierazten du euskaren bilakaera adinaren arabera. 65 urtez goragokoetan euskaldunzahar anitz (%23) eta euskaldunberri gutxi (%1 baino gutxiago). Alderantziz 16-24 urtekoetan euskaldunzahar gutiago (%5) eta euskaldunberri gehiago (%10) eta erdaldunberririk ia batere ez (%1 baino gutxiago).

Zenbakiak erakusten dute hizkuntzaren jarraipena dela gertakizun nagusia eta euskarak irabazi gehiago egiten dituela adin-talde gazteenetan. Lehen familia bidezko transmisioa nagusi zen, orain eskola bidezko transmisioa eraginkorrago.

Badakigu hizkuntzen mugikortasunak hizkuntza gutxituen hauskortasuna erakusten dutela. Dena dela adin multzo gazteenaren euskaltasuna itxaropentsua da, hain segur eskolari esker. Ea, pizkundearen aroan sartzen ari garen.

12. taula : euskararen galtze eta irabaziak adinaren arabera, 2016n (%)

Adin-taldeak	65 eta +	50-64	35-49	25-34	16-24
Irabazi partzialak	4	5	7	9	13
Irabazi osoak	1	2	2	5	10
Galtze osoak	3	3	3	2	1
Galtze partzialak	1	2	2	1	1

Iturria : VI. inkesta soziolinguistikoa, Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua eta EEP, 2016

Euskararentzat irabazi osoak euskaldun berriak dira eta galtze osoak erdaldun berriak. Irabazi partzialak euskalduntzen ari direnak dira eta galtze partzialak erdalduntzen ari direnak. Euskararen bilakaera zehazki neurtzeko, zenbaki gordinak bi taulatan banatzen ditugu : taula orokorra (13.a) eta 16-24 urtekoen taula (14.a)

13. taula: hizkuntzen bilakaera Iparraldeko jendetza osoan

Lehen hizkuntza	Hizkuntzen bilakaera 2016an			Ondorioak
Euskara 1.H eta bi hizkuntzak 54300 = %21,8	Euskaldunak jatorriz 43.200	+ Euskaldun berriak + 8.000	+ Euskalduntzen ari direnak + 16.200	Euskaldungo dinamikoa = 67.400 = %37
Frantsesa 1.H 195.100 = %78,2	Erdaldunak jatorriz 170.900	+ Erdaldun berriak + 4.000	+ Erdalduntzen ari direnak + 7.100	Frankofonia elebakarra = 182.000 = 63 %
Hiztunak orotara 249.400 = %100	E = E F = F	F = E E = F	F → E E → F	Hiztunak orotara 249.400 = %100

Iturria : VI. inkesta soziolinguistikoa, Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua eta EEP, 2016

Hizkuntzen bilakaera euskararen alde mugitu da 2016n: euskaldun berri erdaldun berri baino askoz gehiago (+ 4000). Erdalduntzen ari direnak baino gehiago euskalduntzen ari direnak (+ 9200). Euskararen aldeko mugimendua gero eta indartsuago da.

Zer gertatzen da adin-talde gazteenean?

14. taula: hizkuntzen bilakaera Iparraldeko gazteenengan

Lehen hizkuntza	Hizkuntzen bilakaera 2016an: 16-24 urtekoak			Ondorioak
Euskara 1.H eta bi hizkuntzak 2900 = % 11	Euskaldunak jatorriz 2.400	+ Euskaldun berriak + 2.600	+ Euskalduntzen ari direnak + 3.400	Euskaldungo dinamikoa = 8.400= %31
Frantsesa 1.H 23.500= %89	Erdaldunak jatorriz 17.500	+ Erdaldun berriak + 200	+ Erdalduntzen ari direnak + 300	Frankofonia elebakarra = 18.000= % 69
Hiztunak orotara 26.400 = % 100	E = E F = F	F = E E = F	F → E E → F	Hiztunak orotara 26.400 = % 100


Iturria : VI. inkesta soziolinguistikoa, Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua eta EEP, 2016

Gazteenengan hizkuntzen bilakaera euskararen alde mugitu da molde indartsuan. Euskaldun berri anitz eta erdalduntzea biziki apala da. Euskalduntzen ari direnak erdalduntzen ari direnak baino askoz gehiago.

Zein da gaur egungo euskaldungoaren argazkia?

15. taula: euskaldungoaren argazkia adinaren arabera

Adin-taldeak <i>Sorturtea +/-</i> Euskaldunak	Iparraldea 2016	65 eta + 1944	50-64 1959	35-49 1974	25-34 1987	16-24 1996
Euskaldun berriak	8000 %15	700 %3	1.500 %12	1.400 %16	1.700 %33	2.600 %52
Jatorrizko elebidunak	9800 %19	3000 %15	2200 %17	2100 %24	1400 %27	1100 %22
Jatorrizko euskaldunak	33.400 %66	15.500 %82	9.300 %72	5.300 %60	2.000 %40	1.200 %26



Iturria : VI. inkesta soziolinguistikoa, Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua eta EEP, 2016

2016ko euskaldunen artean, orokorki, bi herenak jatorrizko euskaldunak dira, %19a jatorrizko elebidunak eta %15 euskaldun berriak. Ezberdintasun handiak ageri dira adin-taldearen artean. Zaharretan jatorrizko euskaldunak %82 dira eta gazteenetan %26. Alderantzizko bilakaera da euskaldun berrientzat %3tik %52tara. Eta hein ttipiangoan jatorrizko elebidunentzat %15etik %22tara.

Aldaketa inportantea 25-34 urtekoekin hasten da : euskaldun berri gehiago eta jatorrizko euskaldun askoz gutiago. Adin-talde gazteenean, jatorrizko euskaldun bezainbat jatorrizko elebidun bada %25inguru. Euskaldun berriak nagusi dira, %52a osatzen dutelarik. Aldaketa nabarmena da 2011ko inkestarekin konparatzen badugu. Izan ere, kasik jatorrizko euskaldun bezainbat euskaldun berri bazen (%40) inguru, jatorrizko elebidunak %20 pasatxo zirelarik.

Aldaketa hori familia bidezko transmisioari lotua zaio.

Familia bidezko transmisioa

16. taula : haurren lehen hizkuntza, gurasoen hizkuntza-gaitasunaren arabera

	Guraso euskaldunak			
	Orotara	Biak	Bat	Ez
Lehen hizkuntza: euskara; euskara frantsesarekin; frantsesa bakarrik.	%15,9 %5,8 %78,2	%61 %15 %24	%2 %14 %84	%100
<u>Haurrek 3-15 urte</u>	(720)	(70)	(150)	(510)
Lehen hizkuntza: euskara; euskara frantsesarekin; frantsesa bakarrik.	%6 %11 %83	%66 %20 %14	%54 %46	%1 %99

<u>Haurrek 3-9 urte</u>	(370)	(40)	(70)	(260)
Lehen hizkuntza: euskara;	%7	%73		
euskara frantsesarekin;	%12	%14	%65	%1
frantsesa bakarrik.	%82	%13	%35	%99

Iturria : VI. inkesta soziolinguistikoa, Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua eta EEP, 2016

Gurasoak 3 kategoriatan sailkatzen ditugu :

- gurasoak orokorki,
- Hauen artean, guraso gazteagoak (seme-alabek 3-15 urte),
- hauen artean, guraso gazteenak (seme-alabek 3-9 urte).

1. Bikote guztiak kontutan hartzen direlarik, biak euskaldun direlarik haurren %76aren lehen hizkuntza euskara da (%61arentzat euskara bakarrik) eta frantsesa bakarrik %24arentzat.

Guraso bat euskaldun delarik haurren %14aren lehen hizkuntza euskara da frantsesarekin eta frantsesa bakarrik %84arentzat.

Bi gurasoak erdaldun zirelarik, haur guztien lehen hizkuntza frantsesa da bakarrik.

2. Bikote gazteagoetan biak euskaldun direlarik haurren %86aren lehen hizkuntza euskara da (%66arentzat euskara bakarrik) eta frantsesa bakarrik %14arentzat.

Guraso bat euskaldun delarik haurren %54aren lehen hizkuntza euskara da frantsesarekin eta frantsesa bakarrik %46arentzat.

3. Bikote gazteenetan biak euskaldun direlarik haurren %87aren lehen hizkuntza euskara da (%73arentzat euskara bakarrik) eta frantsesa bakarrik %13arentzat.

Guraso bat euskaldun delarik %65 haurren lehen hizkuntza euskara da frantsesarekin eta frantsesa bakarrik %35arentzat.

Laginaren aldetik 3. multzo honetako emaitzak dudazkoak badira ere, itxuraz, familia bidezko transmisioa hobetuz doa, bereziki euskaldun-erdaldun bikoteekin.

Euskararen erabilera

Hemen euskaldunen mintza-jokabidea aztertu dugu eta hiru mintzamolde bereizi ditugu :

- euskal mintzamoldea : euskaraz beti, frantsesez baino gehiago edo berdin.
- noizean behineko euskal mintzamoldea : euskaraz (oso) gutiago.
- erdal mintzamoldea: beti frantsesez.

Euskararen erabilera harreman eremuetan

Hemen kontuan hartzen ditugu Ipar Euskal Herriko 51.100 euskaldunak. Hiru harreman eremu aztertu dira : familia, gizarte hurbila eta zerbitzu publikoak.

18. taula: euskaldunen mintzamolde harreman eremuetan (%)

Harreman eremuak	Euskaraz gehiago edo berdin	Euskaraz gutiago edo oso gutiago	Beti frantsesez
Etxean	45	23	32
Seme alabekin	44	13	43
Gurasoekin	58	11	30
Anai-arrebeekin	59	12	28
Lagunartean	57	22	21
Auzokoekin	44	17	40
Lankideekin	51	21	28
Saltegietan	26	25	49
Osasun-zerbitzukoekin	19	12	69
Bankukoekin	12	9	79
Udal zerbitzuetan	37	13	50
Administrazioan	10	11	80

Iturria : VI. inkesta soziolinguistikoa, Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua eta EEP, 2016

Familian

Euskaldunek familian dute euskara gehienik erabiltzen, bereziki anai-arreben artean (%59) eta seme-alabek gurasoekin (%58). Aita-amek euskara gutxiago erabiltzen dute beren haurrekin (%44). Dena dela, euskara nagusi den mintzamoldeak kasik solasaldien erdia irudikatzen du (%45). Aldiz, erdarazko solasaldien heina herenaren ingurukoa da.

Gizarte hurbilean

Lagunartean da euskara gehienik entzuten (%57). Gutxiago auzokoen artean (%44). Langileen arteko solasaldien erdiarentzako, euskara nagusi da (%51). Auzoetako saltegietan edota banketxeetan aldiz euskararen presentzia txikiagoa da (%26 eta %12).

Zerbitzu publikoetan

Zerbitzu publikoen eremua nahiko desorekatua da euskararentzat. Adibidez, herriko etxeak (%37). Orotan euskaldunek frantses hutsa erabiltzen dute maizenik, hala nola osasun zerbitzuetan (solasaldien %69a frantses hutsez egiten da). Administrazio publikoetan ere euskararen presentzia ahula da (solasaldien %80a frantsesez egiten da).

Erabileraren sintesia hiru eremuen bilduma eginez

Hiru harreman eremuak banan banan aztertu ondoren, hiruen arteko sintesia egin da, 1991ean asmatu zen "Etxea-Laguna-Formala" tipologiaren bitartez.

19. taula: euskaldunen mintzamoldea Etxea-Laguna-Formala tipologia erabiliz (%)

Adin-taldeak	Orotara	65 eta +	50-64	35-49	25-34	16-24
Euskaldunak	51.100	19.200	13.000	8.900	5.100	5.000

Euskaraz gehiago edo berdin	39	48	38	41	26	23
Euskaraz gutiago edo oso gutiago	50	37	49	55	71	70
Beti frantsesez	10	14	13	4	3	3

Iturria : VI. inkesta soziolinguistikoa, Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua eta EEP, 2016

Adin-talde zaharretik gazteeneraino, euskara frantsesa baino gehiago edo berdin erabiltzen dutenen heina gainbehera doa eten gabe orokorki, %48tik %23ra.

Aldiz euskara frantsesa baino gutiago eta oso gutiago erabiltzen dutenen heina azkarki petik gora doa, ia bikoiztuz, %37tik %70ra.

Beti frantsesez ari direnen heina gorabehera dabil %14tik %3ra.

Bi adin-talde gazteenen lagina ahula delako, ez da fidagarria. Halere itxuraz noizean behineko euskal mintzamoldea nagusitzen ari da (%70a inguru), baina denbora berean erdal mintzamoldea ("beti frantsesez") apalenean dago (%3a osatuz).

Orain arte ikusi dugu euskaldunek zein neurritan erabiltzen duten euskara. Biztanle guziak hartzen baditugu aztergai, euskarak toki ttipia dauka gizartean, erdaldunen kopuruagatik.

20. taula: herritarren mintzamoldea Etxea-Laguna-Formala tipologia erabiliz (%)

Adin-taldeak Hiztunak	Orotara 249.400	65 eta + 68.300	50-64 61.200	35-49 60.700	25-34 32.800	16-24 26.400
Euskaraz gehiago edo berdin	8	14	8	6	4	4
Euskaraz gutiago edo oso gutiago	15	13	15	13	15	22
Beti frantsesez	77	73	77	81	81	74

Iturria: VI. inkesta soziolinguistikoa, Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua eta EEP, 2016

Adin-talde zaharretik gazteeneraino ageri da euskal mintzamoldea gutituz doala %14tik %4etaraino. Noizean behineko euskal mintzamoldeak ordea emendatze azkar bat ezagutu belaunaldi gazteenarekin (beste belaunaldietan %13 eta %15en arteko gorabeherak ezagutzen zituelarik). Erdal mintzamoldea da nagusi adin-talde guzietan. Hori uler daiteke %69a erdaldun elebakarrak direla gogoan atxikiz.

Lau inkesten konparaketa

2001, 2006, 2011 eta 2016ko inkestak konparatuz, ikusten dugu euskaraz frantsesez bezainbat edo gehiago mintzatzen diren euskaldunen heinak %40 eta %45en artean oszilatzen duela (2001ean %40ekoa zen, ondoko bi inkestetan %45ekoa, 2016koan berriz, %40ekoa).


Halere, euskaraz gutxiago edo oso gutxiago erabiltzen dutenenek euskaldunen erdia ordezkatzen dute. eta bereziki gazteenengan (%69a), hurrenez hurren.

21. taula: euskaldunen mintzamoldea azken 4 inkestetan

Inkestak	2001	2006	2011	2016
Euskaldunak	47.300	51.800	51.100	51.200
Mintzamoldeak				
Euskaraz gehiago edo berdin	18.900 % 40	23.450 % 45	22.820 % 45	20.300 %40
Euskaraz gutiago edo oso gutiago	23.200 % 49	21.250 % 41	23.810 % 46	25.600 %50
Beti frantsesez	5.200 % 11	7.100 % 14	4.470 % 9	5.300 %10

Iturria : Inkesta soziolinguistikoak, Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua eta EEP, 1991-2016

21. taula: euskaldunen mintzamoldearen taula azken 5 inkestetan



Iturria : Inkesta soziolinguistikoak, Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua eta EEP, 1991-2016

Erabileraren pedagogia (E. Bachoc-en azterketa)

Inkesta honetan ikusi ditugu zein diren euskararen erabilera baldintzatzen duten faktoreak : gaitasuna, harreman sareak eta hizkuntzaren estatusa.

1. Norberaren ezaugarriak dira bereziki hizkuntza-gaitasuna eta motibazioa. Ongi eta biziki ongi dakitenek dute euskara erabiltzen. Euskal elebidunak dira erran nahi baita euskaraz frantsesez baino trebeago direla. Pedagogia problema da nola aski ongi jakitetik biziki ongi jakitera igan. Baina trebatzeko erabili behar da, eta erabiltzeko trebe izan behar da. Gurpil zoro hortarik ateratzeko bide bakarra motibazioa da, motibazio pertsonala eta kolektiboa.

2. Harreman sareak bi moldetara uler daitezke : edo molde demolinguistikoan eskualde batean euskaldunek daukaten dentsitatea (euskaldun batek errazkiago aurkituko du mintzakide bat Garazin ezinez eta BABn) ; edo molde sozio-psikologikoan euskaldunek elkarrekin nahiz josten dituzten loturak, bikoteak, lagunarteak, kantu, dantza edo antzerki elkarteak, politika edo ekonomia egiturak.

3. Hizkuntzak gizartean daukan estatusa baldintza nagusi bat da hizkuntza baten erabileran. Oinarrizko legearen onarpena falta bada, Iparraldean gertatzen den bezala euskararentzat, erankundeek eman behar diete herritarrei herri hizkuntza erabiltzeko aukera eta erraztasuna Orduan euskarak "de facto" hartzen du onarpen publikoa, "de jure" onartua izan arte. (*Irakur Iñaki Martinez de Luna, Hizkuntza biziaren euskarriak, BAT 53, 55. orrialdean*).

Euskararen aldeko motibazioa

Euskarari buruzko jarrerak

Inkestatu guzietan, euskaldun ala erdalduen, iritzi zerrenda bat proposatu izan zaie, galdeginez ados zirenez bai ala ez. Hona hemen oso ados eta ados direnen ehunekoak :

- *Irrati-telebistek programa gehiago behar lukete euskaraz, ados %44,4.*
- *Nahitezkoa da haur guzietan euskara ikas dezaten, ados %52,2.*
- *Administrazioan sartzeko, beharrezkoa litzateke euskara jakitea, ados %51,2.*
- *Hobe da jendeak ingelesa ikas dezan ezinez-eta euskara, ados %42,9.*
- *Guztiz bertakoa izateko, euskara jakin behar da, ados %52,6.*

Iritzi hauek oinarrizkat hartuz 3 jarrera definitu dira : oso edo aski aldekoak, ez alde ez aurka, aski edo oso aurkakoak. Iparraldean axolagabeak dira nagusi, %47,5arekin. Aldekoek %35,4a osatzen dute. Eta aurkakoak askoz gutiago dira (%21). Ageri da iritzi publikoaren parte inportante bat prest dela euskararen aldeko hizkuntza politika ausarta onartzeko.

22. taula: euskara sustatzeko jarrerak adinaren arabera (%)

Adinarteak Jarrerak	Orotara	65 urte eta +	50-64	35-49	25-34	16-24
Aldekoak	35,4	36	36	37	34	31
Ez alde ez aurka	47,5	45	46	49	51	48
Aurkakoak	17,2	19	18	14	14	21

Iturria : VI. inkesta soziolinguistikoa, Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua eta EEP, 2016

Euskararen aldekoen tasak aski erregularrak dira adinarte batetik bestera, nahiz eta gazteenetan kopuru hauek pixka bat jaitsi (%31 gazteenentzako). Ohargarri da axolagabeen neurri indartsua dela %47,5eko bataz bestearekin. 16-24 urtekoetan aldekotasuna apalenean da, axolababeak pixka bat gutitu dira aurreko belaunaldearekin konparatuz (%48a, 25-34 urteko adinartean %51a delarik).

Beste ezaugarri batzu badira euskaren aldeko jarrera baldintzatzen dutenak, adibidez erantzulearen sorteria. Euskal Herrian sortu direnetan aldeko jarrerak %50 dira eta aurkakoak %17. Euskal Herritik kanpo sortuak direnetan: aurkako jarrerak, baita aldekoenak ere, %24ekoak dira. Hain zuzen BABeko jendetzaren erdia baino gehiago kanpotik etorria da.

Euskararen ezagutzari begira, euskaradunetan, aldeko jarrerak (%76) askoz aurkako jarrerak (%7) baino gorago dira. Aldiz erdaldunetan %26 dira euskararen aitzinamenduaren alde eta %19 aurka

Euskal nortasuna

Euskaltasunaren kontzeptu hau erranahi askotakoa dela. Batzurentzat nozio linguistikoa da (euskalduntasuna), besteentzat nozio soziopolitikoa (herritasuna). Galdea hau zen : 24. G. *Euskalduntzat daukazu zure burua ?*
Erantzunen hautua : *Anitz. Nahikoa. Doi bat. Guti. Deus ez..*

23. taula: *euskalduntzat daukazu zure burua ?*

Euskaltasuna	Orotara	BAB	Lapurdi	Baxe Nafarroa Zuberoa	Elebidunak	Elebidun hartzaileak	Erdaldunak
Asko, nahikoa	57%	45%	62%	77%	93%	82%	43%

zertxobait	19%	24%	16%	14%	5%	12%	24%
Gutxi Deus ez	23%	29%	21%	8%	1%	5%	31%

Iturria : VI. inkesta soziolinguistikoa, Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua eta EEP, 2016

Ipar Euskal Herrian orokorki jendeen erdia baino gehiagok (%57) beren burua euskalduntzat daukate. %19ak bere burua pixka bat euskalduntzat jotzen du eta ia laurden batek (%23) ez du bat ere bere burua euskaldun bezala ikusten.

Lurralde batetik bestera ezberdintasun handiak nabarmentzen dira: BAM-en %45ak bere burua euskalduntzat dauka, Lapurdin %62%ak eta Baxe-Nafarroan eta Zuberoan %77ak. Alderantziz, BAM-eko populazioaren %29ak ez du bat ere, edo gutxi, bere burua euskalduntzat kontsideratzen. Lapurdin, populazioaren %21ak gauza bera pentsatzen du eta Zuberoan eta Behe Nafarroan %8ak.

Hizkuntza-gaitasuna kontutan hartzen badugu, ia elebidun guztiek haien burua euskalduntzat jotzen dute (%93), elebidun hartzaileen parte inportante batek ere bai (%82). Erdaldunetan ere, kasik erdiak bere burua euskalduntzat dauka (%43) eta %31ak kontsideratzen du ez dela euskalduna edo oso gutxi.

Bachoc-ek dion bezala, ageri da hizkuntza gaitasunak eragin handia duela euskaltasunaren kontzientziari begira.

Hizkuntza politika

Inkestatuei galdegin zaie nola estimatzen zuten azken urte hauetan euskarari buruz antolatu diren hizkuntza politikak.

- Orokorki nola baloratzen duzu abian ezarri diren euskararen aldeko hizkuntza politika publikoak ? Egokiak edo desegokiak ?

Galde bat, lau balorazio posible. Edo baloraziorik ez.

- *Zendako egokiak ? Asko egin delakotz ? Ez delakotz gehiagoren beharrik ?*
- *Zendako desegokiak ? Gutxi egin delakotz ? Gehiegi egin delakotz ?*
- *Berdin zait.*

Hona emaitza nagusiak.

24. taula: hizkuntza politika publikoen balorazioa (%)

	Iparaldea	BAB	Lapurdi bestalde	Nafarroa B. Zuberoa
Hizkuntza politika	249.400	102.200	114.500	32.700
Egokia zait	19,2	16	21	25
Desegokia zait	18,6	17	20	20
Berdin zait	16,0	14	18	16
Erantzunik ez	46,1	54	42	38

Iturria : VI. inkesta soziolinguistikoa, Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua eta EEP, 2016

Herritarrek zer diote euskararen aldeko hizkuntza politikaz ? Ohargarri da jendeen %62,1ek ez dutela baloraziorik egiten, edo berdina zaie (%16), edo ez diote galdeari erantzuten (%46,1). Nola ulertu behar da axola falta hau ? Bachoc-k galdatzen duen bezala, “*politika ezin aipatuzko tabua dea, hizkuntzen alorrean ere*” ? Ikusten dugu %58,5 direla euskaraz interesa (aski) handia dutenak. Bachoc-k izkiriartzen du ; “*Ez da harrigarri interes gutxi edo deus ez dutenek, hizkuntza politikaz axola falta erakusten badute ere*”.

Euskaraz axola dutenek nola baloratzen dute hizkuntza politika ? Orokorki :

- % 19,2 egokia dela estimatzen dute ;
- % 18,6k desegokia dela pentsatzen dute.

BABkoak dira hizkuntza politikaz estimu ahulena adierazten dutenak : %16. Behe Nafarroan eta Xiberoan, euskararen aldeko politikaz askoz gehiago axolatzen dira (%45) eta hizkuntza politika hori hobeki estimatzen dute, 9 puntu gehiago (%25). Baina, inkesta batetik bestera, emaitza horiek oso aldakorak dira, batzuetan 10 puntuko diferentziakin.

Hizkuntza politikaren balorazioa egin dutenen ikusmoldeak

Orain aztertu behar dugu zein diren hizkuntza politikaz axolatzen direnen ikusmolde ezberdinak.

Euskararen aldeko hizkuntza politikaz zerbait erran dutenetan, balorazio zabalena ezkorra da : ez dela egokia guti egin delakotz %16,3. Gehiegi egin dela pentsatzen dutenak bekan dira, %2,3 orokorki.

Euskararen aldeko hizkuntza politika hobeki estimatzen dutenak Behe-Nafarroa eta Xiberokoak dira : egokia dela asko egin delakotz %20.

Aski egin dela pentsatzen dutenak %5,5 dira batz-beste.

25. taula: hizkuntza politikaren balorazioa egin dutenen ikusmoldeak (%)

<i>Hizkuntza politika</i>	<i>Iparraldea 2011</i>	<i>BAB</i>	<i>Lapurdi bestalde</i>	<i>Nafarroa B. Zuberoa</i>
<i>Egokia zait</i>	<i>48.000</i>	<i>16.100</i>	<i>23.600</i>	<i>8.300</i>
asko egin delakotz	13,7	11	14	20
aski egiten delakotz	5,5	5	6	5
<i>Desegokia zait</i>	<i>46.500</i>	<i>16.900</i>	<i>23.000</i>	<i>5.300</i>
guti egin delakotz	16,3	14	18	18
gehiegi egin delakotz	2,3	2	3	2
Erantzunik ez	62,2	68	59	55

Iturria : VI. inkesta soziolinguistikoa, Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua eta EEP, 2016

Zer nolako gizartea nahi dugu ?

Dudarik gabe, nahi dugun Euskal Herria elebiduna da. Herritarren %93ak pentsu du etorkizunean euskaraz eta frantsesez mintzatu beharko dela Iparraldean. Iritzi berdina agertzen da galdeak egiten direlarik eskolari buruz (%76,7ak nahi du haien haurrek euskara eskolan ikas dezaten).

Ikastetxe elebidunak

Galdea zen : "Haurrik bezenu eskolan, zein hizkuntzatan nahi zenuke ikas dezaten? Erantzunak lau aukera ematen zituen, oraingo egora kontuan hartuz : murgilbidea, elebitasuna, ibilkariak edo eskola elebakarra. Emaitzak aurkezten ditugu aldagai ezberdinekin.

26. taula: ikasteko hizkuntza zure haurrentzat ? (%)

	Orotara	Euskaldun	Erdaldun
Euskaraz, frantsesa ikasgai	19,2	49	10
Euskaraz eta frantsesez	41,0	38	41
Frantsesez, euskara ikasgai	16,5	4	21
Frantsez bakarrik	18,6	5	24

Iturria : VI. inkesta soziolinguistikoa, Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernua eta EEP, 2016

Oro har eskola elebidunak dauka lehentasuna (%41). Ondotik, bertze hiru ereduak emaitza hurbilak ukan dituzte: %19,2 euskal murgiltze sistemarentzat, %18,6 frantses elebakar ereduarentzat eta %16,5 frantsesezko ereduarentzat, euskara ikasgai bat bezala erakatsia denean.

Erdaldunentzat ere, elebidun sistema nagusi da (%41); frantses eredu elebakarra da bigarren ateratzen (%24). Euskaldunentzat, murgiltze sistemak du arrakasta gehien (%49). Elebidun sistemak jarraitzen du, %38arekin.

Geroko hizkuntzak

Galdea zen : "Zure ustez, geroan, zein hizkuntzetan mintzatu behar litaike Iparraldean?" Hiru aukera euskaraz, frantsesez edo bietan. Mezua argia da. Kasik aho batez herritarrek pentsatzen dute Ipar Euskal Herrian, euskara eta frantsesa direla geroko hizkuntzak . % 93 eta gehiago dira iritzi berekoak

27. taula: zein hizkuntzatan mintzatu behar litzateke etorkizunean?

	Orotara	Euskaldun	Erdaldun
<i>Euskara hutsean</i>	2,3	8	1
<i>Euskaraz eta frantsesez</i>	93,3	91	94
<i>Frantses hutsean</i>	3	1	4

Iturria : VI. inkesta soziolinguistikoa, Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua eta EEP, 2016

Edozein aldagai hartuz iritzi nagusia da elebitasunarena, oro har %94 eta berdintsu 3 eskualdeetan, adin-talde guzietan, euskaldun ala erdaldun.

Euskara bakarrik mintzatu beharko litekeela pentsatzen dutenak gutxi dira : %2,3 osatzen dute. (%9 euskaldunetan). Tendentzia elebitasunerantz doa.

Bestalde ohargarri da Iparraldeko eleaniztasuna : %39ak gaztelania dakite, %30ak ingelesa eta %11ak beste kanpoko hizkuntza bat.

Laburbilduz erran genezake ororen gogoan elebitasuna dela etorkizunean Ipar Euskal Herriko hizkuntza Horrek gaur egungo egoera ongi irudikatzen du: euskaldun guztiak elebidunak dira eta gero eta erdaldun gehiagok ahaleginak egiten dituzte euskarara buruz joateko.

Euskarari buruzko itzaropena.

Eztabaidatu beharreko iritzia zen: "*Euskara galtzeko arriskuan dago*". Erantzunek ematen dute herritarren itzaropenaren edo beldurraren neurria..

28. taula: euskara galtzeko arriskuan ote ? (%)

	Orotara	Euskaldun	Erdaldun	65 urte +	16-24
Euskara arriskuan	41,1	46	36	32	54
Ezbaian	8,7	9	37	9	12
Arriskuz kanpo	45,7	42	19	52	27

Iturria : VI. inkesta soziolinguistikoa, Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua eta EEP, 2016

Oro har euskararen aldeko itzaropena eta galtzeko arriskuan dagoela pentsatzea orekatuak dira (%40a baino gehiagotan), salbu hiztun gazteenen artean (gehiengoak pentsatzen baitu euskara arriskuz kanpo dagoela). Euskararen galtzeko beldurra handituz doa adin-talde zaharrenetik gazteeneraino: %52, %50, %42, %43, %27.

Bururapena

Iparraldean bizi den jendeak zatituak dira euskararen bizirautearen inguruan. %40 batek uste du euskara arriskuz kanpo dagoela, beste %40 batek kontrarioa pentsatzen duelarik. Euskararen etorkizuna ez da oraindik argi.

Jadanik erran dezakegu euskara bihurgune batean dagoela. Nahiz euskal hiztunen portzentajeak txikituz doazen, konturatzen gara zenbaki absolutuak egonkortzen ari direla. Horrek adierazten du belaunaldi gaztea hiztun zaharrenen galera konpentsatzen ari dela.

Euskaldun berrien kopuruak azkar emendatzen dira. Horretarako eskolek eta helduen euskalduntze zentroek funtsezko garrantzia dute.

Euskara berrabiatzearen bidean dago. Euskararen pizkundea egingarria da eta egiteko bidean. Erramun Bachoc-ek idazten duen bezala, motibazioari buruzko emaitzak sinesgarriak diren neurrian, asmatzekoa da dinamika indartsu eta iraunkor batean sartuak garela.